

geuk emakumeok lantzen ditugu soroak eta haziak eta janaria bildu; gure soroetako uzatetik eta biltzen ditugun hazi eta fruituetatik bizi gaitzeko. Ez dugu zuek gizonon beharrik». Eta eztabaidan hasi ziren. Lehen Gizona haserre baino haserreago jarri zuten emaztearen erantzunetik eta amorrak jota suaren gainetik jauzi egin zuten, eta isilik eta bakardadean igaro zuten gaua».

Bi pertsona desberdin...

Generoari begira ikuspegi interesgarria eskaintzen du Navajo sorrera istorioak, Matthewsena garaiko Amerikako Estatu Batuetan edo Europan bertan arrotz, ulertezin, eta ziur aski eskandalagarri iritziko ziotena. Akaso horregatik moldatu zuen istorioa Matthewsnek. Generoa, ordea, ez da modu berean ulertu garai eta gizarte guztietan, eta itzulpenen bidez arras Euroamerikarra den ikuspegia (Judith Butler bera horretan partaide izan da) inposatu da euroamerikarrak ez diren testuetan.

Hamarkada batzuk geroago, indiar amerikarrak desagertzeko zorian zeudela eta AEBak haien kultura babestean sukarrak jota zegoenean, Hehaka Sapa (Altze Beltza) Lakota medizina gizonak esandakotik abiatuta indiar amerikarren eguneroko bizimoduari, historiari eta erlijio jardueri gaineko kontuak bildu zituen John G. Neihardtek *Black Elk speaks* (1932, Altze Beltza mintzo da) liburuan. Azken hori ez zen, ordea, Hehaka Sapak kontatutakoaren itzulpen zehatza. Matthewsnek Hathali Nezek errezitatuarekin egin bezala, Neihardtek sakon editatu zuen kontakizuna, Hehaka Sapa berez pertsona konplexua bezala azaldu ordez, estatubatuarrek indiar amerikarren gainean duten irudi erromantiko-tragikoaren bat egiten zuen erretratua eskaintzeko.

Gerora argitaratu zituzten transkripzioetako une batean Hehaka Sapa etsai zuriak akabatzeke saiakeri buruz poz-pez mintzo da, eta handik gutxira kristau kulturaren bete-betean sartuta dagoela azaltzen du. Hain zuzen, gazterik bataiatu zutenean Nicholas izena jaso zuen eta Osaba Nick bezala ezagutzen zuten tribuko denek, nahiz eta Hehaka Sapa zuen jatorrizko izen. Neihardten liburuan, ordea, ez da zuriaren kontrako mendeku gosearen ezta kristautasunari buruzko aipamenik egiten. Liburukoa eta grabazioetako bi pertsona ezberdin direla ematen du.

Iceberg beltzaren gainaldea

Peru Iparragirre

Txomin Peillenenek (Paris, 1932) idatzitako *Gauaz ibiltzen dana* (Kriseilu, 1967) izan zen, errepikatzen denez, euskarazko hirugarren nobela beltza, Jose Antonio Loidiren *Hamabost egun Urgainen* (1955) eta Mariano Iztaren *Dirua galgarri* (1962) liburuen ostean. (H)ilbeltza Euskal Nobela Beltzaren Astearen ekimenez atera da. *Gauaz ibiltzen dana* eleberraren berrogeita hamargarren urteurrena dela-eta, *Zaldi beltzak zeruan* (Pamiela-Maiatz, 2018) ipuin-bilduma. Eleberrari horren hiru atalek ematen diote hasiera bildumari. Peillenek, liburuaren aurkezpenean: «[Gauaz ibiltzen dena] liburuaren parte onena dela iruditzen zait, tartekoa. Hasiera geldo samarra baitu liburuak, eta amaiera ez zait ona iruditzen». Hiru atal horiez

gain beste bost narrazio labur biltzen ditu liburuak: lehenik argitaratu gabeko lau eta lehendik argitaratutako Lege-mediku aditua. Joseba Sarrionandiaren hitzaz-urra du bildumak. Peillenen obra zabalaren azalpen labur bat egiten du bertan, «icebergaren gainaldea seinatuz bezala, abisatzeko Txomin ez dela euskal idazle soil bat, baizik eta, arean, eus-



‘Zaldi beltzak zeruan’
Idazlea: Txomin Peillen.
Argitaletxea: Pamiela.

kal idazle-elkarte bat». Apenas ehun orri dituen liburu hau ere iceberg baten gainaldearen gisara ikus daiteke, ur azpian ezkutatuta dagoenari sarrera bat bezala.

Peillenen beraren lanera gerturatzeko parada aproposa da bilduma. Sarrionandiak esaten duen bezala Peillen idazle-elkarteak ugari eta zabal idatzitako baitu eta liburu honetan horretarik hainbat zertzelada ageri baitira. Martxoaren San BERRIARI eskaini zion elkarrizketan argitzen ditu Peillenek liburuaren du bere ibilbideari buruzko hainbat gako, Jon Miranderen eta E.A. Poeren eskutik heldu zela bere genero beltzera, adibidez.

Nabaria da, elkarrizketan esaten duenaren bidetik, etnografiaren garrantzia Peillenen idatzietan: jendea nola bizi den kontatzen du, zer duen jaten, nola den harremantzen. Italiako, Mexikoko, Normandiako edo Euskal Herriko gertakariak kontatzen dituela, bokazio hori du. Horren froga argia da liburu honetan ipuin bilakaturako Maddi Hardoiaren lekukotasun lazgarria: *Zakur bazka*. Ahozkotatunetik gertu dago darabilen idazkera ere.

Oro har soiltasuna darie narra-

zio hauei, bortizkeria soila, ez du te alferreko apaingarrik eta batzuetako tonua hotza izatera ere iristen da, zehaztasuna eta zorrotasuna ere ez da falta behar den lekuan. Pertsonen eta, batez ere, gizartearen (edo gizarte) azterketak eta bidegabekeriaren salaketak dira narrazio hauetako gehienak. Gaizkiaren eta, ale batzuetan, globalizazioaren gainerako gogoetak ere badira, besteak beste. Genero beltzari dagozkion ohiko topiko batzuk biltzen dira liburuaren, baina badago, zorionez, haietatik harago begiratzeko tartea ere.

Azken urteotan antolatuta den (H)ilbeltzak ikusgarritasuna ekarri dio nobela beltzari. Egia da, edo hala dela iruditzen zait, behintzat, urtez urte generoko hainbat liburu argitaratzen diren arren, irakurlegoa badutenak, ez zaiela beti merezi duten lekua zuten. Erreferentzia argia bilakatzeko ari da, baina, (H)ilbeltzaren bilgunea, elkargune gisa, lehenik, baina baita gune sortzaile gisa ere. Antolatzen dituzten hitzaldi eta mahai-inguruak, liburu hau bera edo (H)ilbeltza beka dira, besteak beste, asmo horren erakusle argiak.

«Nikaragua sandinista!»

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero


Liburuak bi planotan garatzen den narrazio luzea da, abiapuntua gaur egungo Donostia duena, zahar-zaintze lanetan aritzen diren bi emakume nikaraguar (Violeta eta Claudia), eta euren bi alabekin (Luna eta Daniela). Bigarren planoan Nikaragua iraultzaileen kokatuta dago, Graciela izeneko emakume behartsu baten bizitzan zentratuta.

Bi planoen ardatza Luna da, berak irakurriko duelako amona Gracielak idatzitako egunerokoak. Narrazioaren Donostiako partea ahots orojakile anonimo batek kontatzen du, eta Nikaraguakoa, Gracielak.

Nikaraguako zein Donostiako kontaketeak irakurlea hunkitzea dute ageriko helburu, pertsonaien sufrimenduaren eta gerta-

era lazgarrien oroitzapenaren bidez, baina tamalez emaitza mugimendurik gabeko narrazio luzea da, non gertaerak gertatu beharrean kontatu egiten diren, eta pertsonaiek manikeo eran jokatzen duten, *naturalizan* ordez.

Dena den, literatur maila apala badu ere, «Nikaragua sandinista!» noizbait oihukatu duenak oroimenez irakurriko du liburu hau, aspaldiko aldarrikapen iraultzaile haien oroitzapenak arranguez berritzea beti delako asegarri.



‘Limoiondoaren loreak’
Idazlea: Lur Gallastegi. Ilustratzailea: Susanna Martin. Argitaletxea: Elkar.

Altxor uhartearen ‘spin-off’-a

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Pentsatzen dut denok ezagutzen dugula *Altxor uhartea* eleberrria. Hango itsas giroa, hango jendeak, hango haurrak. Bada, esku artean dugun *Lapatza* liburu hartako haur bati gertatu izan balitzaio bezala da. Zeren edozein gizalditan eta kostaldeko edozein herritan gerta zitekeen.

Baina Euskal Herrian gertatzen da, Bizkaiko kostaldekoa den herri batean (Elantxobe?, Ea?) izenak iradokitzen duenez; eta gaur egungo garaietan dela dakigu, zeharkako erreferentzia batzuei esker: neoprenoa, udalekuetako begiraleak, txikleak,...

Piratarik ez dugu aurkituko, soilik haurrak eta marinela, harrizko hondartzak eta kaiialdea, itsasoak ekarritako traste zaha-

rrak eta harrizko hondartzan bere base *sekrutua* duen neskatok bat.

Istorioak abentura izatera iristen ez den pasadizo bat kontatzen du, anekdota bat, baina horrek igual diu. Liburuxka honetan inporta duena aldarrikatzen den bizi-grina (grina-bizia) da, zenbat eta grina gehiago orduan eta haurrago da haurra, eta biziago dago haurra, eta basatiago da haurra, kasik Jim Hawkins gaztea edota Long John Silver pirata maltzurra adina.



‘Lapatza’
Idazlea: Paddy Rekalde. Ilustratzailea: Jokin Mitxelena. Argitaletxea: Elkar.